

Lehen zatiko komunikazioak - (12:00 - 12:30)

A1 - **“Ohiko erabilpenetatik haratago: kompetentziak, koordinazioa, kooperazioa eta (auto)kontrola lantzen moodleko jarduerak erabiliz”** - Rosa Arruabarrena, Montse Maritxalar (Informatika Fakultatea, UPV/EHU) - [Eus]

Moodle erabiltzaileek plataforma modu estandarrean erabili ohi dugu nagusiki: baliabideak modu ordenatuan eskuragai uzteko, eztabaida guneak antolatzeke, galdetegiak modu sinkronizatuan kudeatzeko, etab. Hala ere, eskuragai eta ezagunak diren jarduerak modu berriztatzaileagotan erabil litezke. Hemen, EHUko informatika fakultateko irakasgai batzuetan azken bi urteetan izan dugun esperientzi baikor bat azalduko da, hain zuzen ere, foroak ardatz izanik eta wikiak eta kalifikatzailea konbinatuz, ikasleen kompetentziak, koordinazioa, kooperazioa eta kontrola garatzeko erabili dena.

A2 - **“Arizmendi ikastolaren digitalizazio bidea”** - Elena Errasti (Arizmendi ikastola-Leintz bailara) - [Eus]

Arizmendi ikastolan 1x1 ereduaz ezarria dugu DBH (6-7 gela/mailako) eta Batxilergo (4 gela/mailako) osoan. Gure ikasleek ikasmateriale digitalak erabiltzen dituzte eta “gehiago, hobeto eta desberdin ikasteko” bidea aztertzen dihardugu. Komunikazio honetan ikastolak bere digitalizazio prozesuan emandako pausuak azalduko ditugu eta Moodle horretan egin dugun ekarpena deskribatuko dugu. Horretaz gain, beste ikastetxeentzat eredu egingarriak eta praktikan jarritakoak erakusten ahaleginduko gara.

A3 - **“Irakasbil. Garapen profesional areagotzeko baliabidea”** - Luis Mari Gonzalez de Txabarri Miranda eta Xabier Martín Apaolaza (HABE) - [Eus]

Irakasleen prestakuntzara bideratutako zerbitzuen artean, IRAKASBIL gizarteratu du HABEK, BETA bertsioan bada ere, irakasleen, eta bereziki euskara irakasleen garapen profesionalari bide berri bat eskaini asmoz. Horrela, orain arte HABEK argitaratutako materialez gain (Zutabe/Hizpidetako artikulak, ikastaroetako bideoak...), erreferentziazko baliabide bilakatu nahi du didaktikan IRAKASBILek, era ezberdinetako euskarriak eskainiz: berriak, eztabaida-foroak, euskararen inguruko ekarpenak, didaktikaren gainekoak... Azken batean, praktikan oinarritutako komunitate izan nahi du.

Irakasleei zuzendutako atari berri hau Moodle plataforma gaienean dago garatuta eta plugin berezi bat erabiltzen da horretarako. Plugin berri honek CMS baten funtzioa betetzen du: edukiak kudeatu, bilatzailea, etiketak eta abar. Plugin honen ezaugarriak eta garatzeko emandako urratsak aurkeztuko ditugu.

A4 - **“Las Matemáticas del Bachillerato en Flipped”** - Jon Martínez Recio (Centro María Inmaculada - Bilbao) - [Gaz]

Usando Moodle como herramienta y plataforma básica he conseguido flippear la clase de Matemáticas aplicadas a las ciencias sociales de 2º de Bachillerato. He conseguido reforzar la autonomía y herramientas de auto aprendizaje, como competencias transversales y unos resultados académicos mejores que en otros cursos. Voy a explicar las tareas y recursos básicos de moodle que he usado, así como la manera en la que hemos trabajado en el aula.

A5 - **“Eduki eleanitzen kudeaketa Moodle-n”** - Iñigo Zendegi (Mondragon Unibertsitatea - Arrasate) - [Eus]

Saio honetan erakutsiko da nola erraztu daitekeen eduki eleanitzen kudeaketa Moodle-n hainbat gehigarri erabiliz:

-
- Eduki eleanitzen iragazki hobetua (filter_multilang2)
 - Eduki eleanitzen kudeaketa Atto testu-editorean (atto_multilang2)
 - Eduki eleanitzen kudeaketa TinyMCE testu-editorean (tinymce_moodlelang2)
 - Hizkuntzaren araberako baldintzak (availability_language)

Bigarren zatiko komunikazioak - (12:00 - 12:30)

B1 - “Ikasketa esperientziaren hobekuntza” - Andoni Sanz (Sagrado Corazón) - [Eus]

Gamifikazio eta beste batzuen artean (visible thinking, esaterako) ikaslearen ikasketa esperientziaren hobekuntza bermatzeko gida praktikoa.

B2 - “Acceso a contenidos externos mediante los módulos Marsupial” - Eneko Rípodas (Javyser Formación y Desarrollo - Iruñea) - [Gaz]

El módulo Marsupial permite el acceso de nuestra plataforma Moodle a los contenidos situados en los servidores de los proveedores de contenidos (p.e: editoriales de libros de texto) servidores de proveedores de contenidos y posteriormente guardar e integrar en Moodle los resultados de la interacción en dichos contenidos. En la charla hablaremos de nuestra experiencia con dichos módulos en el centro de Jesuitas Pamplona.

B3 - “UEUen irakaskuntza telematikoaren eredia finkatzeko ebaluazio matrizarik” - Maitane Muñoz Iturria (UEU Udako Euskal Unibertsitatea - Bilbo) - [Eus]

UEUk ibilbide luzea egin du IT alorrean, horrekiko konpromiso sendoa adieraziz. 2013-2014 ikasturtean zehar, Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) irakaskuntza-ereduaren printzipioak indartzeko asmoz, irakaskuntza telematikorako (IT) eredia sortu zen. Horren helburu nagusia UEUren ikasgela birtualean (Moodle plataforma) aurrera eramaten diren ikastaroen diseinurako eta kudeaketarako irizpide zein ezaugarri nagusiak biltzea da. Gaur egun, aipatutako IT eredia erakundearen erreferentzialtasun-ikur bilakatzeko lanak egiten ari dira.

2014an sortutako eredia hobetzeko, zabaltzeko eta finkatzeko asmoz, UEUren eskaintza telematikoaren diagnostikoa egitea ezinbestekoa da. Horretarako, eredu pedagogikoaren ahulguneak eta indarguneak ezagutzeko eta hauek gainditzeko asmoz, azkenengo bi ikasturteetan zehar eskaini diren ikastaroen azterketa eta ebaluazioa burutu da.

Azterketa burutzeko ebaluazio-matriza edo errubika erabili da. Ebaluazio tresna honetan zeregin, helburu edo kompetentzia batean irizpideak eta kalitate mailak deskribatzen dira (UEUren kasuan, on-line ikastaroen diseinua eta irakaskuntza). Horrela, burutu beharreko lanaren ezaugarri zehatzak ebaluatzeko puntuazio gidak sortu dira, egindako lanaren gaineko feedback-a, autoebaluazioa eta koebaluazioa bultzatuz.

Mooteu 16an ebaluazio prozesu honetan emandako pausuak eta sortutako ebaluazio euskarria, matriza, aurkeztu nahi da. Ebaluazio euskarria UEUren ikasgela birtualean oinarritu arren, edozein Moodle plataforma ebaluatzeko bitartekoa izan daiteke.

B4 - “Teknologia bihotzetik bihotzera” - Ibon Burgoa Tello (Bihotz Gaztea Ikastola-Santurtzi) - [Eus]

DBHko Oinarrizko teknologia ikasgaia moodleren inguruan antolatzen da. Ikasgaia proiektuen metodoan oinarritzen da, eta proiektuak garatzeko scrum metodologia erabiltzen da. Ebaluazioa eta koebaluazioa moodleren laguntzaz burutzen da, eta emozioen kudeaketa ere lantzen dugu. Ikasleen ebaluaziorako moodleko errubrikak erabiltzen ditugu.

B5 - "HEZKIDETZAN ESKU HARTZEN online ikastaroa: eGelaPI eta Moodle hezkidetzaile "hedatua" - Arantza Campos (EHU-Donostia) - [Eus]

(2 ardatz hauek ikutuko genituzke: Moodle irakasleen prestakuntza eta Moodletik Haratago) 2015-2016an burutu dugu HEZKIDETZAN ESKU HARTZEN online ikastaroaren 1. edizioa. Hezkidetzan oinarrizko prestakuntza eskaintzen duen ikastaroa izateaz gain, metodologia aktiboen aldeko apostua ere egiten du. Ikasleek, (guztiak hezitzaileak: hezkuntza formalekoak, ez formalekoak, berritzegunetakoak...) Moodletik abiatuta haien inguru hurbilean esku-hartzeak egitera eta hausnarturikoa sareetan konpartitzera iritsi dira.

<http://www.ehu.eus/eu/web/zuzenbide/hezkidetzan-esku-hartzen>